




Covid-19-ak pertsona guztiei kalte egiten die.

“Migrazioak” egitasmoaren gizarte proiektuaren ibilbidean lagun asko egin ditugu. Gaurko egoera berezi honetan oso interesgarria iruditu zaigu hauetako hainbati, berau nola bizi duten galdetzea, bai gure artean, bai beraien jatorrizko herrialdeetan ere. Horregatik leiho birtual hau irekitzea erabaki dugu, non, aldizka, gurekin “Migrazioak” proiektua osatu duten hainbat lagunekin izandako solasaldiak argitaratzen joango garen.

- **Salvador Osvaldo Parelo**



Salvador Osvaldo Parelo Rosarion (Argentina) jaio zen. Gaur egun gure artean bizi da. Duela gutxi bere herrialdea bisitatu du eta han dagoen egoera coronavirusi dagokionez azaldu dezake. Zumalakarregi Museoko Migrazio Proiektuan partehartzailea da, pedagogia arloan eta baita ere “Leopoldina Rosa” erakusketan.

2020ko apirilaren 4ean Lurdes Azpiazukin izandako solasaldia.
Konfinamenduaren 3. astean .

Salvador: Kaixo?

Lurdes: Kaixo. Egun on Salvador.

Salvador: Kaixo, zer moduz?

Lurdes: Zer moduz zaudete?

Salvador: Ondo, ondo. Hemen gaude.

Lurdes: Ondo. Aizu, Espainiako gobernuak alarma egoeraren berria eman zuenean martxoaren 13an COVID-19k sortutako osasun krisiagatik zuek zure

jaioterrian, Argentinan, zenbiltzaten oportetan. Zer suposatu zuen berri honek zuentzako?

Salvador: Bai, ni oportetan nengoen. Martxoaren 26an itzultzekoak ginen baina COVID-19ri aurka egiteko adostu ziren neurriengatik martxoaren 19an bueltatu behar izan genuen. Hegaldiak bertan behera utzi ziren eta aireportuak ixten hasi zirelako bueltatu nintzen. Herrialde guztiak babes bila ziren. Beraz martxoaren 19an bueltatu izan behar nuen eta Iberiak egindako ahaleginagatik beste lurraldeetan zeuden argentinarrak eta espainolak aberriratzeko bueltatu ahal izan nuen. Iberiak jendea aberriratzeko antolatutako 48 orduko etengabeko hegaldiei esker Espainara bueltatu ahal izan nuen.

Lurdes: Eta martxoak 19an bueltatu zinen esan duzun bezala

Salvador: Martxoak 19an bueltatu nintzen hurrengo egunean bertan, aireportua itxi egingo zen. Ia ihes egiten.

Lurdes: Argentinako gobernuak badaezpadako eta derrigorrezko bakartze soziala dekretatzen du egun hortan, ezta?

Salvador: Hilak 20an

Lurdes: Eta nolakoa da gaur apirilak 4ean Argentinan dagoen egoera?

Salvador: Gaurko egoera da haiek pentsatzen dutela kutsatze neurriak aurreratu egingo direla, apirilak 15a arte konfinatuta egongo direlako beste herrialde guztietan bezala, protokolo berdinak eta gauza berdinak eginez. Gauza da, kontzientziatzen hasi direla eta beno, gauzak zailtzen ari dira eta baliteke kasuen iritsiera aurreratuko dela. Orain harte, orain dela gutxi arte kasuak inportatuak izan dira baina orain bertakoak azaltzen ari dira, kutsatuak direla esan nahi dut. Hau da egoera, gutxi gora behera, beste tokietan dagoena bezalakoa.

Lurdes: Gobernuak adostu dituen neurriak hemen daudenak bezala dira? Derrigorrezko konfinamentua?

Salvador: Bai, bai, bai. Munduko Osasun Erakundeak esandakoa betetzen ari direnez, herrialde guztietan hartutako neurriak ia berdinak dira. Adibide bezala beste herrialdeetan gertatzen ari dena hartuz, ezta? Italian eta Espainian. Orduan, beno, hasiera batean jende harroak ez zuen ez beste hiritarrekiko ez berrogeialdiarako neurriekiko errespeturik. Gauzak ez ziren seriozki hartu eta oporrak izango balira bezala ulertu ziren. Orduan, gobernuak neurri zorrotzak jarri zituen egoera kontrolatzeko asmoz, eta neurriak betetzen ari diren herrialdeetan gertatzen ari dena ikusiz, neurriak eraginkorrak direla jabetzen ari garela dirudi. Horrela, hauekin betez eta, honek funtzionatuko duela ematen du.

Lurdes: Hausnarketarako unea da ezta?

Salvador: Hausnaketarako unea da bai, ondo etortzen ari zaigun eguneroko hausnarketa da. Gaizki egin ditugun gauzetaz jabetzen ari garelako.

Lurdes: Eta nola ikusten duzu etorkizuna? Han eta hemen. Han hemen baino familiarragoa suposatzen dut.

Salvador: Bai, senide batzuk baditut han, baina gehiengoaren hemen dago. Nik uste dut han pandemiarekiko errespetu gehiago dagoela. Egoera honek gizabanako guztiei eragiten digula jabetu garenez, elkarrekin aterako garela kontziente gara. Gizartean edukazio hobea izateko eta pertsona apalagoak izateko balioko digu, guztiok beharrezkoak garela nabarmenduz edozein dela ere bere lanbidea eta elkarrekin izan behar garela, gizarte batua bezala, etorkizua izateko, eta etorkizunik ez dugu ezagutuko indibidualismoa, harrorkia eta besteenganako errespetu falta baldin badaude.

Lurdes: Zure familiarekin zaude Zumarragan?

Salvador: Bai, bai, orain hemen nago, Jainkoari esker. 15 eguneko konfinamendua errespetatu nuen besteengan errespetua adierazteko. Gainera ni bizi naizen eraikinean nere bilobak bizi dira. 15 eguneko konfinamendua igaro nuen Argentinan. Espainiatik atera eta Argentinara iritsi nintzenean Kanariasen ba zeuden kasu batzuk, beste herrialdeetan gertatzen ari zen bezala.

Lurdes: Oso ondo. Ikus dezagun etorkizunak zer dion. Gizarte maila indartuta eta aldatuta aterako garela suposatzen dut.

Salvador: Hemendik aurrera gauzak egin baino lehen ondo pentsatuko ditugu. Nik ikusten dudan arazorik larriena pertsona asko kontzientzia hartzen hasi direla baina badaudela beste pertsonak aldaketarik jasan ez dutenak, nahiz eta egoera berdinean bizi. Gauzak modu zehatz batean ikasi ditugunean, gauza horiengan daukagun ulertzeko modua aldatzea zaila izango da. Hala ere, orokorrean kontzientzia gehiago egongo da. Dana ondo joango dela espero dugu.

Lurdes: Oso ondo Salvador, pozten nau zu ondo ikusteak ondo iritsi zarelako. Egoera hau hobetu bezain pronto elkar ikustea espero dut.

Salvador: Berdin, pozten nau zu entzutea. Espero dut egoera hau laster bukatzea psikologikoki gehiago eragin ez dezan.

Lurdes: Beno besarkada bat eta eskerrik asko. Laster arte.

Salvador: Besarkada bat eta zorte on.

Lurdes: Eskerrik asko. Agur, agur.

Salvador: Agur.